

Eider Adeletx

**Sra. Polaroskaren
proiektuan oinarrituta**

**ALAMEDAKO
DANTZALDIA
AUDIODRAMAK, USOAK, BALSAK**

IZENBURURA: ALAMEDAKO DANTZALDIA: AUDIODRAMAK, USOAK, BALSAK.
LEHEN EDIZIOA: 2021EKO EKAINA.

LIBURU HONEK CREATIVE COMMONS LIZENTZIA DU:



EDIZIO HONENA: EZTENA JAIALDIA – ZIZT! KULTUR ELKARTEA.

BERE TESTUARENA: EIDER PEREZ MARTINEZ.

BERE TESTUARENA: SRA. POLAROISKA.

HITZAURREARENA: EZTENAKO LANTALDEA.

92. ORRIALDEKO ARGAZKIARENA: AMETS BADIOLA RUBIO.

EDIZIOA ETA EKOIZPENA: EZTENA.

KOORDINAZIO TEKNIKOA: METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA.

EUSKARA AHOLKULARIA: AGUS PEREZ.

DISEINUA: ALLENDE ARNAIZ ETA IDOIA BERATARBIDE.

MAKETAZIOA: ALLENDE ARNAIZ ETA JOSEBA ROLDAN.

WWW.EZTENA.LIBURUAK.EUS

EZTENA@LIBURUAK.EUS

INPRIMAKETA: LEITZARAN GRAFIKAK. 20140 ANDOAIN.

ISBN: 978-84-09-31172-9

LEGE GORDAILUA: D 00693-2021

Eider Adeletx

Sra. Polaroiskaren
proiektuan oinarrituta

ALAMEDAKO DANTZALDIA

AUDIODRAMAK, USOAK, BALSAK



eztena



ERRENERIA
UDALA

KKULTURA
kreatiboa

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	9
-------------------------	---

ALAMEDAKO DANTZALDIA

Eider Adeletx	15
----------------------------	----

ALAMEDAKO DANTZALDIA (GIDOIA)

Sra. Polaroiska	91
------------------------------	----

BIOGRAFIAK

Eider Perez Martinez	115
-----------------------------------	-----

Sra. Polaroiska	117
------------------------------	-----

HITZAURREA

2020. urteko ekainean Eztena arte eszenikoen jaialdiak 12. edizioa bete behar zuen. Urte hura, ordea, pandemiak sortutako mundu mailako egoeragatik oroitua izango da batik bat. Jendarte osoan bezala, kulturgintzan ere eragin itzela izan zuen gertaerak. Ekainean ospatu behar zen Eztena jaialdia irailera pasatu behar izan genuen, eta ostera, itxialdiz itxialdi, abendura arte luzatu zen. Eztena jaialdia osatzen dugunon erronka kulturarekiko konpromisoa mantentzea izan zen, eta nola edo hala pandemiaren eztandaen aurretik aurreikusia genuen jaialdia osotasunean gauzatzen tematu ginen. Ez zen erraza izan itxialdiaren ostean Eztena jaialdiaren antolakuntzari berrekitea: ekainetik irailera pasa behar izan genituen datak, inkognitaz beteta. Itxialdiaren ostean, oso argia zen Eztena jaialdiko taldekideen erabakimena: jaialdiko ekitaldi guztiei eutsi behar zitzairen, kosta ahala kosta, berdin emanaldiak, ikastaroak edo kale ekintzak. Ez zen batere erraza izan, ekitaldi askoren espazioak eta azpiegiturak arau murriztaileetara egokitu behar izan genituelako. Murrizketak murrizketa, zorionez bidelagun izan genituen Errenteriako Udaleko langileak ere, araei zirrikituak bilatzeko prest. Egokitu beharrekoen artean, noski, *Alamedako dantzaldia* zegoen.

Ekainean egin behar ziren ekintzen artean zegoen Sra. Polaroiskari enkargatutako proiektua: Errenteria/Oreretan ikerketa bat egin eta performance bat gidatu behar zuen Maria Ibarretxe eta Alaitz Arenzanak osatutako taldeak. 2020an bertan Errenteriaren 700. urteurrena ospatzeko asmoa zegoen Udalaren aldetik, eta horrekin lotuta egin genion enkargua Sra. Polaroiskari, Eztenaren egitarauaren barruan. Gaia ere jarria genien aurretik: *Alamedako dantzaldia*. Errenteria/Oreretako

herritarren memoria historikoan biziki iltzatua geratu den garaia da zumardiko dantzaldiena; gutxi asko gerra osteko hiru-lau hamarkadatan luzatu ziren dantzaldi haiek, hamarkadatik hamarkadarako ñabardurekin, eta haiek bizi izan zituztenen seme-alabek ere, ezagutu ez dituzten arren, familien memorietan gordeta dituzte: ez dira gutxi izan dantzaldi hauetan elkar ezagutu zuten herriko bikote gazteak. Dantzaldiei loturiko ikerketa bat egin behar zuen, beraz, Sra. Polaroiskak Errenteria/Oreretan eta, hara non, mundu mailako pandemia surrealista bat azaldu zen, gure oinak bakardadean, isolaturik, dantzatzero kondentazero.

Sra. Polaroiskako kideen irudimenean garai hartako dantzaldiak berpiztea zegoen hastapenean, modu artistikoagoan nahi baldin bada, baina gaurko egunetik berriz ere bizitzeko aukera emanez. Eta, batez ere, nola ez ba, dantzatzero asmoz. Ezin, ordea. Ezinezkoa izan zaigu azken urte osoan dantzatzero. Ez, behintzat publikoki, eta ez lagunduta. Nola antolatu, bada, Alamedako dantzaldia 2020ko urte pandemikoan? Oraindik ere gogoan ditugu zumardian, udararen atarian, Maria eta Alaitzeekin egindako bilera luzeak. Zenbat arau, zenbat debeku, zenbat ezintasun. Zenbat ideia eta B plan eta C plan eta D plan erori zitzaizkigun, debekuekin talka eginik. Nagusia: ezin genuela kalean ezer egin, une horretako arauen arabera, begira gera zitezkeen zortzi lagun baino gehiagoko talderik ezin zen sortu; aglomeraziorik ez, eserita eta leku akotatueta ez bazen. Eta ez, arauak ez zihoazen bat Alamedako dantzaldiak transmititu nahi zuenarekin.

Pixkanaka audioaren bidea hartu zuen proiektuak. Sra. Polaroiskako lagunek herritar asko elkarrizketatu zituzten Errenteria/Oreretan, historialariek elkartu ziren, udal artxibategia arakatu zuten... eta materiala pilatzen joan zen, eta formatua berrasmutzen. Kanpotik ezin zena tripetaraino eraman nahi

zuten Sra. Polaroiskakoek, jendea elkartu eta nola edo hala dantzaz jarri. Kontzeptualki bazen ere. Eta hala, irratsaioaren gidoia osatzen joan ziren. Horretarako, batez ere lau aktoreren laguntza izan zuten: Oier Zuñiga, Alizia Otxoa, Gaizka Chamizo eta Alazne Corral. Hainbat elkarrizketatu ere batu zitzaizkien, berriz ere, grabaketarako. Horrekin batera, milaka postal banatu ziren herritarren buzoietan irratsaio artistiko honen lehen emisiora, estreinaldira, gonbidatuz. Gonbidapenean bertan bi aukera ematen ziren: batetik, jaialdiko egitarauan plaza batean egingo zen entzunaldi kolektibora etortzea eta, bestetik, norberaren etxean entzutea, ahal zela dantzatzuz. Eta hala egin genuen, batzuok eta besteok; gogoan ondo iltzatua dugu Koldo Mitxelena ikastolako patioan 70 lagun inguru elkartu ginenekoa, aurikularrak soinean, denok batera dantzaldia entzunez: hunkipena, oroimena; begirada konplizeak lurrera lotzen gintuzten aulkietatik; ipurdia altxatu gabe, irratsaioak aurrera egin ahala airea harrapatzen saiatzen ziren besoak, ukondoak, lepoak, belauak eta orkatilak.

Lortu zuten, Sra Polaroiskakoek. Lortu genuen, denok ere.

Esperientzia eder haren lekuko geratu zen audioa sarean, entzungai. Horren ostean, orde, egindako lanak gehiagorako eman zezakeela sentitu genuen, oroitzapen ber-haragituen iturria ez zegoela itxia. Pandemiako zehar-ondorioen eraginez (positiboak, itxialdiak...), ekitaldiak abendura arte luzatu zitzaizkigun 2020ko Eztenan, eta konturatzerako hurrengoari heldu beharra zegoen. Hala, liburua hilabete gutxi batzuen buruan osatu behar izan genuen. Eztena jaialdiko konplize batekin harremanetan jarri ginen horretarako: Eider Perez 'Adeletx' partaide izan genuen 2019ko Eztenan egindako hiru laborategietako batean, Aldarri izenekoan. Libre utzi genuen dantzan, idazterakoan: baldintza bakarra abiapuntua Alamedako dantzaldia izatea zen, eta Sra. Polaroiskak egindako lana.

Esku artean duzue, 2021eko Eztena honetan, pozez betetzen gaituen emaitza.

Ez dira urte errazak izan. Baina, akaso, kulturaren funtzio soziala (ezen ez hutsean komertziala, ezen ez hutsean entretenimendura bideratua) eta bizi dugun prekarietate latza berriz ere geratu dira agerian, aurretik ezagutu gabeko indarrarekin agian. Birusek egoera lasaitzean espejismo hutsa suertatu ez izana desio dugu orain: liburu honek transmititzen duen dantzatzeko askatasuna berehalakoan ez itzaltzea.

EZTENAKO LANTALDEA

Eider Adeletx

Sra. Polaroiskaren

proiektuan oinarrituta

ALAMEDAKO

DANTZALDIA

AUDIODRAMAK, USOAK, BALSAK

ALAMEDAKO DANTZALDIA

Audiodramak, usoak, balsak

Eider Adeletx

Ún dostres
ún dostres

bát biru
bát biru
errepikatu nirekin

bát biru
bát biru
eta buelta

berriz

un pá pá
un pá pá
beste aldera

begiak itxita
zorabiatuko zara
un pá pá
eta geldi

bát biru
bát biru
eta buelta
ez begiratu oinetara

aska zaitez

beste behin
hasieratik

ún dostres
ún dostres

bát biru
bát biru
bizkarra zuzen
sentitu erritmoa un tá tá
eta buel-tá tá

oso ondo
berriro hasieratik

un tá tá
zaldiko-maldiko bateko
poniaren ibilkeran
un tá tá
un tá tá

aska zaitez

ikusi duzu?
hori da... un tá tá

burua isiltzen denean
gorputzak hitz egiten du